

HAUSTURAK

*Ah, el día en que pude mandarme
mudar, subirme al tren, mirar por la
ventanilla cómo todo se iba para
atrás, se hacía pedazos, no sé si has
visto cómo el paisaje se va rompiendo
cuando lo miras alejarse.*

(Julio Cortázar. *El perseguidor*)

Jon Kepari
*Elur bustia
hire begirada*

TRENAK, burdinbideen hedatze-plan berriak medio, jende asko ekarri zuen Izurkiza hogeiko hamarrurtekoan, gerora gerra bezperan —eta gerra ondorenean— eramango zituen beste kasik. Batzuk behin-behineko eraman zituen, betiko bestetzuk, iparraldetik etorritako Don Mariano apaiz hura kasu.

Ez zen bakarra izan, haatik.

Julian eta bere familia gerra hautsi berritan etorri ziren herrira, giro gatazkatsuegatik jada apalduxa zegoen lan-eskaintzak erakarrita baino areago, liskarrek eragindako korromio eta gorrotoetatik ihesi. Apaizaz galdetu, eta, artean, horrelakorik ez zegoela, baina luze gabe bat bidalia izango zela entzun zutenean, beranduegi izan zen gauzak jaso eta arriskutsua zeritzaien herri hartatik, etorri bezala, alde egiteko. Asteko nekea senide baten terreatze ankerraren oroipena baino erabakiorragoa izan zen, antza, ordu arteko ibilbideari Izurkizen planto ematekotan.

Hegoaldetik zetozen, gerra garai hartan herioa bezala. Trenbideko langileek egin zuten grebarekin eman zitzaion hasiera beren herrian gatazka odoltsu hari, denboraz labur baina oinazez jori gertatu zena.

GERRA BEZPERA ZEN, eta hartara bazterrak aski nahasiak, langileak estaziotik atera eta arrapaladan alkatearenera aurrena, eta hurrena abatetxera abiatu zirenean. Mendeku grina eta gorrotoa errotuak ziren jada nonahi. Afrika aldetik zetozen berriek kolore batekoen zein bestekoen kirioak dezente berotuak zituzten, eta gertatutakoa bor-bor etengabean aritutakoaren gainezkatzea besterik ez zen izan. Egun hartan grebalariek errepublikaren kontra matxinatutakoak bertara apurka-apurka hurbiltzen ari zirela jakin zuten, eta, ihesari eman baino lehen, ordaina egina utzi nahi izan zuten. Biharamunean den-denak mendialdera lekutuak ziren herrian ezer gutxi utziz: familia, etxea eta bi gorpu errauts bihurtutako elizaren gapiriotik dilindan, alkatearena bata eta apaizarena bestea.

Julianen osaba.

Zer gerta ere, iparraldeko bidea hartu zuten Julian eta bestek, berena bezalako herri batekin topo egin zuten arte: gurea. Beren herritik atera eta, nondik jo asmatu ezinik, trenbidea jarraitu zuten urratsez urrats, “arrail hauek norabait eramango gaituzte” amonaren aholku-aginduari amore emanez.

Estazioagatik geratu omen ziren Izurkizen, bertan Julianen aitak, trenbide-hedapenaren berehalako bukaera eta gerrak eragindako geldialdia gorabehera, famili osoaren sostengua behar zuen lana eskuratzea espero zuelako, gerra bukatutakoan, eta bere herriko estazioan langile egondako urte mordoskaren eskarmentua medio, lortuko zuena. Hasieratik beretik baztertuxeak egon ziren, isil eta uzkur, besteekin nahastea —azalaren ilunagatik ziurrenera— kostatuko bailitzaien. Ez zuten sekula herrikoen artean giro onik gozatu, ez hasieran, estazioko langile gehienak nazionalen mehatxuagatik ihesi joanda bakar-bakarrik haur, ama eta agure-atsoekin geratu zirenean, ez tiro-hotsak isildu eta langileak — autoritateen barkamena altxatu zutenak— apurka-apurka itzulitakoan ere, hasierako muzina mesfidantza bihurtzen baita denboraren joanean.

Eta zer esanik ez gerraostean, zauriak zorna dariela daudenean.

Izan ere, Julian hasieratik inadaptatu bat izan zen. Hargatik gertatutakoa.

HERRIKO MUTILETATIK ni izan nintzen berarekin tratu gehien izan nuena, baldin eta tratua elkarri esandako bizpahiru galdera-erantzun laburri dei badakieke. Zeren, normalean gurekin ibili arren, hutsaren hurrengo izan baitzen gure koadrilan, inork jaramonik egiten ez dion mozolo horietakoa hain zuzen, futboleko portero edo ezkutaketan beti paro izan ohi dena.

Indartsua zen, haatik, oso. Alvaro bezainbat.

Alvaro herrian jaio eta hezia zen. Nabaria zen bere presentzia nonahi, anpurutsu eta harro. Mintzatzen apenas zekien ume mukizu bat besterik ez zen garaian, zegoeneko, bereak eta bi eginak zituen han eta hemen, eta, dudarik gabe, burua zen jada adin bereko beste mutikoon artean. Begirune handia genion. Bera zen beti zer egin eta nora joan erabakitzen zuena, eta denok etsi egiten genuen bere nahikerien aurrean, gu baino indartsuago, zailduago eta, batik-bat, bipilagoa zelako.

Mertxiketara joan ginenean hartan erakutsi zuen bezala.

ABATETXEAREN GIBELEAN zegoen baratza handi hura, Ibaitek edaten zuen kanalaren ondoan. Mertzikaz mukurua ageri ziren arbolak San Fermin egun sargoritsu hartan, eta eskura, Don Mariano zena —gerra aurretik izan genuen apaiz zoroa— estaziora abiatua baitzen ordubete lehenago, ohiz bezala bazterrak nahastera. Alvarorena izan zen, jakina, kanaletara beharrean, apaizarenera mertxika bila joatearen ideia, eta berea ere, baratzan zaindari zegoen zakur tzarrari desafio eginez, arbolatik arbolara korritzeko ausardia.

Fruta gozoa nahi zuen, eta ez zegoen hori burutik kenduko zionik.

Bart gertatu bailitzan gogoratzen zait. Murrutik gertuen zegoen arbolara salto egin zuen, eta berehala hara, oinetara azaldu zitzaion mastin erraldoi hura, amorru bizian zaunkaka. Gu baratzako beste muturrean jarri ginen Alvaroren esanetara, abatetxea xedatzen zuen murruan igota eta zakurrarengandik nahikoa urrun. Behean txiki-txiki egin nahian saltoka ari zitzaion zakurrari jaramonik egin gabe ihardun zuen Alvarok mertxika heldu eta gozoenak kolkoratzen, eta, bukatzean, ziztu egin zigun guk gureari ekiten hasteko. Orduan Jose Luisek baratzara salto egin eta toreroa zezenari bezala oihuka eta imintzioka hasi zitzaion basapiztia han, zeina, senetik erabat aterata, Alvaroren orkatilak begiratzeari utzi eta ziztu bizian oldartu baitzitzaion, aparra betaginen tartetik zeriola. Jose Luis atzera murrura igo eta mastina gure oinetan zaunka zoroan genuen artean, Alvarok zegoen arbola utzi eta kolkoa bete mertxika ondokora abiatu zen lasterka. Zakur tzarra beregana iristerako salbu zegoen jada goiko abarretan, arriskutik urrun eta fruta gozoa hartzeari berriro emana. Laupabost arbola izan zirela uste dut arindu genituenak, eta laupabost dozena ere jan genituen aleak.

Horrelakoxea genuen Alvaro.

Alvaro zena.

NIREA IZAN EZIK koadrilakoon aita guztiak —gerrak barkatu zituenak— estazioko enpleatuak ziren, lanak hasi berritan alkateak idatzi zuen bandoari kasu eginez bertako langile-zerrendan izena eman zuten-eta. Bando hartan lanpostu berrien hobariak aipatzen zituen alkateak, herrikoek nekazaritzaren buruhauste eta nekeak ahaztu eta iristear zegoen etorkin oldearen aurretik trenbideko langile izan zitezen. Gu beranduxeago iritsi ginen, aitak mediku-plazaren berri jakin bezain pronto. Orduz geroztik estazioko mediku aritu zen, baina istripurik gertatu ezean ez zen sekula bertaratzen, kontsulta, herrikoentzat zein estaziokoentzat, etxean baitzeukan. Bestalde, eta akaso ferrobiario peto-petoa ez izateagatik, muttiko-koskorretan gure jolastokia herriko plazatik txopera, kanal eta, batez ere, estazioko eremuetara aldatu genuenean, baztertu samar geratu nintzen koadrila barruan, niri ez bezala, haiei odoletik baitzetorkien estazioarekiko atxikimendu hori, bertako zoko-moko guztiak ezagutzen ederki laguntzen ziena. Aisialdi horiek osatu zuten trena eta estazioarekin izan genuen aurreneko harremana; ez ordea Julianena.

Trenak ez zion sekreturik gordetzen.

Guk estazio bazterrak jolastoki bihurtu genituen garaian, apenas herriratzen zen langile berririk, azaltzen ziren bakanak gerratik ihesi baitzetozen. Aurrekoak baino pobregoak, inondik ere.

Julianen aita.

Umetan koadrila aski itxiak izan ohi dira. Erakutsitako ausardia eta indarra medio, partaide bat hartzen da buru, eta ezer berezirik gertatzen ez bada, honek hala izaten jarraitzen du koadrila uzten duen arte.

Joaten den arte, alegia.

Aski handia zen gure koadrila gerra garaian eta gerraostean. Ferrobiario gehienek, Julianen herrian gertatu bezala, hanka egin zuten nazionalen mehatxua usnatu bezain pronto, familiak herrian utziz —eta han ez bezala, hemen ez zuten gorpurik utzi beren ihesean, akaso den-denak kolore batekoak zirelako, baina eliza errauts bihurtzeko lana hartu zuten behinik-behin, guztiaren lekuko izan omen zen Jose Luisen aitak kontatu zigunez. Gerra bukatzean irabazleek egin zuten aurreneko lana eliza berri bat altxatzea izan zen, lehengoa zegoen toki berean—. Urdinak nagusitzean gorri-uste batzuk itzuliko ziren osterara, eta berehala jarri herriko autoritate berriaren esanetara. Galtzaile zein irabazleen seme, gure koadrilan bi koloretakorik zegoen hartara: gorri zein urdin, hala nola, bien nabardurak jasotzen dituen neurrian, bien morroi ere dena: arrea.

Julianen larru-azalaren kolorea hain zuzen.

GERRAREN ENBATAK berekin eramandako Don Jose maisuaren ordezkoren eskutik azaldu zen Julian estrainekez eskolara, eta usadiozko errezen ondoren aurkeztu zigun maisuak iritsi berra: “Julian”.

Ez zuen besterik esan, eta aurrerantzean beste bat bailitzan hasi zen berarekin, heldu berri den orori zor zaion ardura izpirik ere erakutsi gabe. Hasiera hartan, eta gurekin egon zen bitartean orobat, kasik ez zen hitzik atera Julianen ahotik, ezta bere begietatik negar anpulerik txikiena ere isuri, beren ohiko girotik deblauki erauziak izan eta egoera arrotz batera egitera behartuak diren haurrengan gertatu ohi denaren kontrara. Isil-isilik, bere baitan bildua pasa zituen hasierako egun haiek guztiak, kinka larri hari eusteko behar zituen euskarri guztiak, kanpoan baino areago, beregan aurkituko bailituen. Irudi ere, lotsati eta ahula zirudien Julianek, hitz eta keinuetarako antzu, eta halaxe iritzi zioten klasekoek estrainekez egunetik, goiz hartan bertan, eta jada zegokion aulkian burumakur eserita zegoela, gutako batek, ardailaren anonimatoan babesturik, “ijituprejitu!” bota baitzion inpentsan.

Alvarok.

Hasierako mututasun irme hari aktibitate herabe apal bat jarraiki zitzaion. Jadanik ez zen zurrin antzean irakasleari beha egoten, baizik eta, honi entzungor, pupitre gainean zabaldua zuen orri ajatu batean marrak egiten etengabe, berak bakarrik ezagutzen zuen jolasen batean buru-belarri sartuta. Hatz-puntarekin eutsita, arkatza orriaren gainean tente jarri eta bultzada batez irristatzen zuen, honek bere erorian marra bat markatzen zuelarik. Behin batez, horretan ari zela, jakinminez hurreratu nintzaion, eta bere sorbalda gainetik bihurgunez betetako trenbide antzeko bat ikusi nuen marraztuta, zeinaren barruti meharrean marra ugari biltzen baitzen elkarren jarraian. Bat bukatzen zen tokitik beste bat abiatzen zen, orduan ez, baina handik egun gutxira ikusi ahal izan nuen helmuga baterako bidean: Solabar.

Bere herria.

ISILTASUNA SEKRETU-GORDAILU ohi da, eta harrokeria gabezia eta ahultasunaren seinale izan daitekeen bezala, mututasunak indarra eta zaildura estal ditzake sarri askotan, ezer erakusteko ez duenak baizik ez baitu bere ahalmenetan sinisten. Eta harroak hori badaki. Hargatik nahitaezkoa zaio uzkuratasun horren giblean ahulezia edo gotortasuna gordetzen den jakitea, horretarako hamaika trikimailu eta makinazio erabiltzen dituelarik.

Apostuzalea zen Alvaro.

Indartsua zen Julian, oso. Eta burdinbideak marratzen aritzen zen uneoro.

EZ ZAIT GOGORATZEN noiz sartu zen gure koadrilan, gauza hauek oharkabea, ohituraren poderioz gertatzen baitira gehienetan. Egunez egunekoak egiten gaitu baten edo bestearen kide. Lagunak ez dira tratatu bidez egiten. Nik, halere, gogoan dut Julian gurekin estrainekoz etorri zen egun hura. Eskolatik atera eta arratsero bezala estazio aldera egin genuenean, inork ez zion bere presentzia mutuari erreparatu.

Agian koadrila barruan itzal handirik ez nuelako gertatuko zen, edo akaso, aita mediku izaki, estazio inguruko korreria haietan interes berezirik ez nuelako, gauza da burdinbide ertzeko etxolara iritsi orduko lagun taldea utzi eta, gure artean berrikerian egingo genuelakoan, betiko xinglekeriak galdetzeraz hurbildu nintzaiola, besteek bezperako dibertsioari segida emanez etxolako kristalak harrikatzeari berriro ekiten zioten bitartean. Ez zidan begirik zuzendu, arreta lagunak txikitzen ari ziren leihoei emana baitzuen zeharo. Nire “gurekin etorri nahi al duzu?” galdera inozoari beste galdera batez erantzun zion ordea:

—Ez al gara iritsi?

Julianek bazekien, nonbait, trenbidea gure aisialdiko biltokia zela, estaziodun herri guztietan gertatzen den antzera. Berak ordurako urteak zeramatzen bere herrian guretzat berri-berria zen guzti horretan; txitean-pitean ibilia zen burdinbide ertzeko etxalde abandonatuetan txikizioak egiten, hala nola arrailen gainean txakur-dirua jartzen, trenak gainetik pasatzerakoan elizako hostiak bezain fina egiteko.

Trenak ez zion, ez, sekreturik gordetzen.

Pixka batean egon ginen horrela, ezer esan gabe. Ez zirudien olgetan ari ziren haiekin harremanetan sartzeko nire behar handirik zuenik, ezta harremanetan sartu nahi ote zuenik ere. Egonean bai, bertan zegoen, baina begiratu besterik ez zuen egiten, keinurik batere egin gabe.

Ezta norbaitek harrikada batez buruan bete-betean jo zionean ere.

Alvarok.

Julian ez zen kristalezkoa, baina.

Ongi gogoratzen naiz egun horretaz. Malko bat bera ere ez nion ikusi odolak kopeta hasieran eta hurrena aurpegi guztia hartu zionean. Zegoen-zegoenean geratu zen une batez, besteei begira-begira oraindik ere, eta ijituprejituka berriro hasi zitzaizkionean herrira bidean jarri zen, motel, azkeneko begiratu lauso-irmoa niri egin zidalarik. Alvarok eta bestek ihestzat jo zuten erretirada hura, kontra egingo zela agidanez, eta aurrerantzean inolako erreparorik gabe hasi zitzaizkion arpa jotzen, sumintzen ez den edo borrokarik egiten ez duenarengan oilokeria baino ez dagoen uste okerrean.

Baina oso indartsua zen Julian, oso.

Julian zena.

Biharamunean berriz, errekreo garaian, gurekin aritu zen futboleko benda bat buru bueltan zuela. Haurren artekoak badauzka, eduki, bere arau eta legeak, helduen artekoen bestelakoak guztiz, eta hartaz inor ez zen harritu Alvaro portero bila ari zela “Preji! Preji!” oihuka hasi zenean, bezperakoa dudarik gabe gordeta izango zion hura errekerituz. “Hi portero!” esan zion, “baina erabiltzak eskuak, burua errematatzeke duk-eta!...”. Patioko bi astigarren artean paratu zenean, bezperako aurpegikera berbera zeukala ohartu nintzen, laua, hutsa, eskuin-ekker zeuzkan zuhaitz sendotako bat zirudiela.

Pipiek barrenak hartuak zizkioten, baina.

GEROZTIK GUREKIN izan genuen eskolan nahiz eskolatik kanpo. Ni behin eta berriro saiatu arren, ez nuen beragandik hitz bakarreko erantzunak baino lortzen. Bere herria gogora etorri zitzaion batez bakarrik hartu zuen mintzatzeko adorea. Hartan orainak eta are gutxiago geroak bere baitan tokirik ez zutela barruntatu nuen aurrenekoz.

GEOMETRIAZ ARI ZITZAIGUN maisua. Bi marra paralelo marraztuak zituen arbelean, eta hauek erregela luze batez seinalatuz “bi marra paralelotzat jotzen ditugu baldin eta sekula elkartzen ez badira” esan zigun propioa zuen zakur-doinuaz. Niri berehala Julianen koadernoko marrak gogoratu zitzaizkidan, eta berari so egin nion. Berak ere, gauza arraroa, ikasgai hartaz interesatua zirudien.

Espresso baten ziztua entzun genuen une horretantxe, eta “Marbonako espresoa” esan genuen denok gure golkorako, maisuak, buruan generabilena barruntatu bailuen, hitza berriro hartu zuenean:

—Egizue kontu marra hauek burdinbidea direla. Bi marra hauek ez dira inoiz bat egingo.

Nik Juliani erreparatu nion. Harrikadaren ubelak sakonagoa egiten zion maisuari egiten ari zitzaion begiratu. Arretaz entzuten zituen haren hitzak, eta ziur nengoen luze gabe bera ere mintzatzeko zela.

—Maisu... —ausartu zen supituan, gainean zituen begiraden pisua sentitzeke.

—...burdinbidearen kasu horretan, munduari bira emanez gero arrail batek bestea uki lezake hasierako puntura iristean. —Maisuak erregela eskuan so egiten zion—. Nire herrian trenbide sarea egiten hasi zirenean amonak halaxe esaten zidan behinik-behin, alegia, aurrean genituen arrail haiek munduko paraje guztiak josi ondoren gure herrira azalduko zirela atzera.

Alvaroren barre-algarak urratu zuen isilunea. Maisuak zutik zirauen, ezbaian, erregela luzeari helduta. Niri Julianen familiaren irudia etorri zitzaidan gogora, Solabarretik gorrien beldurrez ihesi ateratzen, nora jo jakin ez eta, burdinbidetik barrena deslari hasi, Julianek arestian esan bezala ibiliaren ibiliz inoiz berenera berriro azalduko zirelakoan.

—Ez inozokeriarik esan, faborez! —moztu zion maisuak zakar, Alvarorenaren atzetik hautsia zen algararen gainetik oihuka bizian, eta hurrena bi kolpe izugarri jo zituen erregelarekin mahai zaharraren gainean. Ardaila mututu egin zen ziplo, karkara irri ahalke bihurtu, eta Julian pupitre gainera makurtu zen berriro arkatzarekin marrak trazatzera.

Etsi-etsian.

Garai hartantxe, hain zuzen ere, txanponarena gertatu zen.

GURASOEK USTE BAINO sarriagotan egiten genituen piperretako bat aprobetxaturik, burdinbidera abiatuak ginen eguerdi hartan. Julian eta biok mantso-mantso gindoazen galsoro ertzeko eguteratik barrena, gure ahotsen ezean eperrena entzunez, beste guztiak gure aurretik korrika zoroan harrapaketa ari ziren bitartean. Julianek oraindik nabaria zuen kopetako ubeldura, benda astebete edo lehenago kendua bazioten ere. Txakur-dirua generaman patriketan, arrailtan jarri eta trenak zapal-zapal eginda nola uzten zuen ikusteko. Pittin bat geroago heldu baginen ere, gu azaltzerako jada makurtuta zeuden Alvaro eta Jose Luis errailtara, izerditan oraindik, norberak jarritako txanponari so. Espresso iristear zegoen.

Ruterakoa.

Ibaiaren gaineko zubia pasatzen ari zela, bere ziztu ozena entzun genuen, burdinen dardarazioekin nahasita, eta kasik denbora berean txopera gibeletik ke-adar grisaxka antzeman ere makal-kukulun gainetik zerurutzen. Abiada ikaragarrian zetorren, txopera bihurgunean, jada gure ikusmiran, lipar batez dezente moteldu zen arren. Bihurgunea gainditu eta gero berriro abiadura azkartu eta guregana oldartu zen basurde amorratu baten antzera. Alvaro eta Jose Luis errailen parean zeuden txanponei begira-begira. Itzela zen trenaren burrunba, ziztua joz etengabe. Eguerdiaren ordu arteko baretasuna ostots baten antzera urratu zuen tanpez.

Eskuak belarrietara eramane genituen denok batera lurrikara moduko hura gertatu artean. Alvaro eta Jose Luis ikusten nituen errailetatik metro eskas batera, eskuak belarrietan eta garrasi bizian. Burua jiratu eta Julian ere ikusi nuen, nigandik gertu xamar, mutu, eskuak patriketan enparauok ez bezala, eta begirada lausoa puntu zehatz batean gatibu zuela: Alvaro. Eskua une batez patrikatik atera eta txakur handi bat ikusi nion, hatz artean jolastari. Patrika barruan izerdiak berotu eta biguindutako txakur handi bat.

Beste espreso bat etortzekoa zen.

Berosakoa.

Azkeneko bagoia pasatu bezain pronto, nork berea hartu eta barre-algaraka gureganatu ziren, Jose Luis txanponetik geratzen zena pozarren erakutsiz. Ordurako Julian beren ondoan zegoen, mutu oraindik ere, baina hitza hartu zuenean bere ahotsak arestiko trenaren ziztuaren efekto bera izan zuen guregan. Sendoa zen, harroa, eta ez zuen inolako lotsa edo beldur zantzurik adierazten bere jarioan:

—Txanpon galdura jokatu al duzue inoiz? —galdetu zien, isilune bat aprobetxatuz, algara bizian ari zirenei; Alvarori bereziki. Hauek Julianen hitzak berriro entzuteaz harrিতuxeak egon ziren puska batez, isilik eta elkarri begira, baina luze gabe Alvarok erantzun zion beti bezain zakar:

—Jo Preji, mingaina ere baduk!

Gero Julian hatzartean erakusten ari zen txanponari begira jarraitu zuen:

—Ez diguk orain esango txakur handi hori ezertan jokatu nahi duanik, ezta?

Ez zion begietara so egiten, halere.

“Bai” izan zen Julianen erantzun lehorra, eta hurrena, besterik gabe, apostuaren nondik-norakoak azaldu zizkion oraindik harriduratik atera gabe zegoen Alvaro irribarretsuari:

—Gutxi gorabehera oraintxe egin berri duzuen joko berbera da, baina txakur handiak izango dira txikien ordeze...

Alvarok hasteko ez zuen ongi hartu txakur handiarena, horri dirutza baitzeritzon joko inozo hartan alferrik galtzeko. Erronka, gainera, ez zuen inon ikusten, gauzak arestian bezala eginez gero betiere. Behar zituen argibideak Julianen hitz hautsietatik aterako zituen:

—... baina txanponak errekuperatu behar dira. Ahal bada behintzat —jarraitu zuen, burdinbidera makurtuz. Txanpona oraindik bero zirauen arrailaren gainean paratu zuen.

—Trenak zapaldu aurretik bere txanpona hartzen duen lehenengoak galduko du apostua, eta txanpona, jakina, besteari eman beharko dio.

—Eta bigarren horrek ez badu berea hartzen? —galdetu zuen Alvarok duda-mudatan.

—Apostua galduko du, eta, hortaz, beste txanpon bat emango dio irabazleari, zuhurra ez izateagatik.

—Tarte gutxi orduan garaipen eta porrotaren artean —Alvarok, txanpona jadanik eskuan.

—Amen batera ere ez da iristen.

Alvaro aurrez aurre makurtu zitzaion, beste arrailean, eta bere txakur handia bertan jarri zuen seguru antzean, Julianen txanponari so eginez. Apostulari amorratua zen Alvaro, beti irabaztera ohituta zegoen apostularia gainera.

Ohituegia apika.

Nor bere txanponari begira buruz buru zeudela, tren aurreratzen sentitu genuen. Arestian bezala zubiko burdina guztien dardara iritsi zitzaigun belarrietara. Gero txopera gibeletik, ziztuaren abarrotsa lagun, ke-adar grisaxka ikusi genuen zerugoietara altxatzen. Burdinbidearen eskuin-ekzer eper-xaldo batek galsoroaren abarotik hegalaldiari ekin zion tupustean.

Trena gureganantz oldartzen ari zen abiadura ikaragarrian.

Bizkarra erakusten bazidan ere, erraz asko imajina nezakeen Julianen imintziorik gabeko aurpegi lau hotza. Alvaro berriz denon aurrean zegoen. Ez zion begirik kentzen bere txanponari. Izerdi tanta lodi bat lokian behera ari zitzaion, sargoria eta, batik-bat, tentsioaren adierazle.

Trena gertu zen jada. Alvarok orain Julianen esku beltzaran eta hezurtsua zelatatzen zuen arretaz, galtzaile segurutzat jotzen zuenaren mugimendu azkarraren aiduru. Julianek geldi-geldirik segitzen zuen ordea, gihar bat bera ere mugitu gabe. Alvarori so ari zitzaion, antza, bere garaipenaz seguru dagoenaren irmotasunaz. Trena gainean genuen.

Lurrikara.

Alvaro izan zen eskua bere txanponera luzatu zuen lehena, tren hamar bat metrotara zegoela, eta hori eginda horretarako astirik behar ez zuen Juliani begira geratu zen instant batez, azkeneko segundu erdi hartan garaipenaren zaporea gozatuz.

Zapore garratza finean.

Kasik trenaren gurpil astunaren azpitik erauzi baitzuen bere txakur handia Julianek. Trenak ziplo moztu zuen Alvaro eta Julianen artekoa, eta bere pasatzea luzea izan baldin bazen, are luzeagoak lurrikararen moteltzea eta ziztuaren aienatzea. Hurrena isiltasuna berriro, eta Alvaro eta Julian aurrez aurre. Galtzailea eta irabazlea.

Galtzailea berritsu, haatik.

—Babu alaena! Ia hatzak uzten dituk hemen, zoro ez beste!

Julianek mutu segitzen zuen. Eskua Alvarori luzatu zion gero, irabazitakoa errekerituz. Besteok ez ginen ezer esatera ausartzen. Galdu izanagatik Alvaro oraindik buru genuen, Julianek ez baitzuen, apostua irabazita ere, horretarako itxurarik ematen.

Isila eta uzkurra zen-eta. Oso.

—Har ezak, tonto horrek! —esan zion zakar txanpona ematerakoan. Harrotasunari heldu nahi bazion ere, doinuan arrangura eta mingostasun zantzu bat ageri zitzaion, errebantxarako gogo biziak inondik ere. Besteok galtzaile gisa ikusten genuen estrainekoz, eta hori, dudarik gabe, zama itzela zen beretzat ondoko egunetan gainean eramateko. Hargatik, arrainei gertatzen zaien antzera, ahoak galduko zuen gerora.

UMOTU ETA USTELAK JOTA kasik azukre bihurtzen diren fruituen gisara, tragediak ere denbora behar du ontzeko. Julian eta Alvaroren artekoa etengabe bor-bor ari den esne lapikoa izan zen, irakin hasi eta luzaroan gainezka egiten duen horietakoa. Gauza jakina zen Alvarok egun hartakoa gordetzen ziola Juliani, eta irrikaz itxaron ere egiten zuela baretasuna eta, batez ere, nagusitasuna atzera berretsiko zizkion mendekuaren ordua. Besteok burutzat genuen oraindik, baina Julianen presentzia mutuak txanponaren pasadizoa gogora ekartzen zigun behin eta berriro, lehen bezala futboleko portero eta harrapaketa paro izaten jarraitzen bazuen ere. Alvarori indarra besteak irabazi eta txikitzearen gozamenetik baldin bazetorkion, Julianen adoreak sofrimendua zeukan elikagai, eta zenbat eta etsiago orduan eta zailduago egiten ziren bere barne-muinak.

Izan ere, dezente sofritua baitzen Julian. Iritsi berria zelarrik gehienek bere izkurtasunean ahuldaderik ikusi zuten arren, apostuaren egunaz geroztik indartsu eta ausarta ere bazela ohartu ziren. Bazen halere bere nortasunean agerizkoa ez zen gauza bat, akuilatuz gero oso arriskutsua izan daitekeena gainera: etsipena.

Lapikoaren sua.

Julianen barneko garrak oroimenaren hauspoaz indartzen ziren. Betiko utzia zuen iragan galduak erretzen zizkion barneak. Nostalgia garratza zen berea, posta-trena Izurkizetik aurrenekoz pasa zen hartan ohartu ahal izan nintzenez.

Goiago esana dut trenak ez ziola Juliani sekreturik gordetzen. Gu baino askoz gehiago ikusia zen bere aurreko herrian eta, bakanetan bazen ere, noiz edo noiz agerian uzten zuen bere jakinduria hori.

Memoria tristeziaren ekarle zuen. Etsipenaren bermea.

ARRATSALDE SARGORITSU hartan trenbide ertzeko txoperan ginen, bazkalosteko aisialdiaren asperdura *trena asmatzea* deitzen genuen jokoaren bitartez arindu nahian. Bertatik zubiaren dardarak entzuten genituen, eta trenaren ziztua guganako bidean. Bi datu hauek eta, kasu batzuetan, kearen grisaren ñabardura aski behar genituen begi bistara azaldu baino lehen zein tren zetorren asmatzeko, noizbehinka txakur txikiren bat jokatu ere egiten genuelarrik. Trena aldagaitzetan aldagaitzena denez, nahikoa eginak geunden espresoen ordutegietara, eta ongitxo genekien hartara bakoitzari zegokion momentu eta norabidea.

Berririk azaltzen ez zeino behintzat.

Alvaro txanponarekikoan galdu zuen ohore apurra pittinka-pittinka ari zen berreskuratzen noizbehinkako oilarkeriak medio. Bere nagusitasuna itxurazkoa zen halere, Julianen presentzia isilak ozpintzen baitzion jolasean ari ginenero. Hargatik bereak eta bost jasan behar izan zituen Julianek tragedia aurreko egun haietan. Alvaroren zirrikak eta isekak uneorokoak ziren, eta beste guztiok harri eta zur ikusten genuen Julianek eraso haien aurrean erakusten zuen pasibitatea. Bazirudien bere behialako ausardia hura lozorroan zuela, bere barreneko zoko-mokoren batean gordeta, bere ahotsarekin batera.

Arratsaldeko bostak izango ziren zubiaren lantua entzun eta trena txoperaren atzetik barruntatu genuenean. “Haibatekoa”, esan zuen Alvarok desgogara, ahoan zeukan makilgozoari zurrupada bat emanez. Haibatekoaren ordua zen dudarik gabe, hargatik besteon mututasuna.

—Hori ez da Haibatekoa...

Halaxe entzun genion Juliani. Haizea ere isildu zen orduan, bera ere Alvaroren erasoaren esperoan bailegoen.

Txanponarena genuen denok buruan.

—Zer diok, mozolo horrek? —Alvarok oilartuta. Harro-harro ari zitzaien, ongi baitzekien hura Haibateko espresoa zela—. Egik apostua barrenik badaukak! —bota zion hurrena, eguneroko testigantzak ematen duen seguritateaz.

Damu hartu nion Juliani. Hura Haibateko espresoa zen inondik ere.

Ez genekien ordea trenen joan-etorrien kadentzia aldatua zegoenik.

Hautsia.

Errutinak eman ohi duen sasi-irmotasun hartan babesturik, Alvaro bipildu egin zen, eta lepoa jarriko zuela ere esan zuen huraxe, ziztu bizian zetorrena, ordu arteko arratsalde orotan bezala, Haibateko espresoa zela. Lepoa ez baina txakur handi bat bai jokatu zuela koittaduak, anpurutsu, erronka horretan txanponarekin batera galdukea zuen ohorea ere luzarorako berreskuratuko zuelakoan.

Baina bizirik iraungo badugu nahitaezkoa zaigun errutinaz gainera, beste zerbait ere hausten da ezustekoarekin: seguritatea, konfiantza, domeinua.

Sena.

—ZER, KATUAK JAN al dik mihia, kakati hori? —Alvarok, Julianen burua berotzen.

—Hau posta-trena duk, babua —murmuriatu zuen Julianek ahotsa batere altxatu gabe. Eskuan zituen hartxintzar ale batzuk banaka botatzen ari zen errailartera, aspertu antzean. Uste dut galtzeak berak baino areago Julianen jarrera ausente horrek mindu zuela gehien, honek ez zion-eta apostua onartu. Bestea barregarri uztearekin aski zuen agidanez.

Ankerra baitzen Julian batzuetan, oso; eta seguru nago harrezkero erabakita zuela trazaturik zeukan bere aldentzerik gabeko bidean bidaiakide bat izango zuela.

Alvaro.

Arratsalde hartan etsipena barruntatu genuen estrainekoz Julianen uzkurtasunean. Guretzat berria zen posta-tren hark iraganeko oroipen mikatzen bat gogora ekarriko zion nonbait, eta trenak sortutako mindurak Alvarori eraso egitera akuilatu zuen Julian.

Nostalgia eta korromioa nahasi.

Eta biktima bat: Alvaro. Hura, jakina, posta-trena baitzen, hegoalde urrunetik gure herrira aurrenekoz zetorrena. Gerra lehen eta Julian gero etorri ziren leku beretik, hain zuzen ere.

Tren arrotzaren orro eta zurrunbiloak egoeraren tirandurak sortutako isiltasuna arrakalatu zuten une batez. Crema kolorekoa zen, marra bat zeukan saihetsean eta makina beltz erraldoi batek arrastatzen zituen errenkadan pasa zitzaizkigun zazpi-zortzi bagoi haiek.

ORDUKO HARTAN Julianek ez gintuen jarraitu denok Alvaro sutuaren atzetik herrira bidean jarri ginenean. Ni halere besteekin joan aurretik Juliani so geratu nintzaion puska batez. Ez zion trenari begirik kendu, harik eta, ziztu egiteari utzi gabe, nasara sartu eta idi baten antzera arnasa-oska gelditu zen arte. Gero estazio aldera egin zuen poliki espresoak berotutako burdinbidetik barrena, burumakur, errailen arteko harrixketatik oinak arrastaka etengabe.

Gerora, guztiaren ondotik, posta-trenak ez ziola irrikaz itxarondakoa ekarri jakin izan genuen.

Iraganaren berririk ez hartara, bai ordea iragana berritu, iragan gorotz eta eskuragaitza. Hargatik gerokoak.

Alvaroren korromioa eta Julianen etsia. Barrunta zitezkeen tragediaren errailak.

Eta hurrengo egunean, ondokoetan bezala, posta-trena atzera.

Arratsaldeko bostetan.

—Bihar erakutsiko zioat memelo horri zer den benetako apostu bat —esaten zigun Alvarok amorruren amorruez, berri sarrerako eguteratik errenkadan gindoazela. Aurretik zihoan arineketan, bideko harri-zuloetan behin eta berriro estropozo eginez.

—Bihar, bai, bihar ikusiko dik gertu-gertutik posta-tren alu hori! —izan zen bere etxeko ezkaratzean sartu aurretik aditu genion azkena, eta ez gauean ez biharamunean kaleratu zen. Mendekua erruten ihardun zuen koittaduak.

JULIAN ERE EZ GENUEN hurrengo arratsaldea arte ikusi, txoperara gindoazela Alvaro haren leiho azpian gelditu eta “atera hadi Preji, kontu bat badiagu-eta!” oihuka hasi zitzaion arte, haiz zuzen. Bazirudien gure esperoan zegoela, Alvaro aztoratua isildu orduko etxeko ate tzarra mugitu eta bertan azaldu baitzen, mutu beti bezala, begiak lauso, zoriona nahiz tristezia sakonaren seinale izan zitekeen aurpegikera estrainio batez.

Bazterrak bero-sapak hartuta zeuden arratseko ordu hartan. Alvaro bezperako etxeratzean bezain presaka zihoan txopera aldera, izerdi patsetan, mendeku grinagatik barrenak jaten zizkion harrari bazka emateko irrikatan. Taldeko beste muturrean, eskuak sakeletan sartuta eta lasai antzean zetorren Julianengan ez zen aparteko imintziorik antzematen, etorri zenetik propioa zuen azalezko ahuldade hori ez bazen. Seguru zihoan, hartu beharreko norabidea senean aspaldi iltzatuta bailuen.

Hegabera bat bezala.

Bostak bost gutxi izango ziren galsoroak eta txopera josten zituen burdinbidera heldu ginenean. Eguerdia ezkerotik gupidarik gabe ari zen eguzki-galdak gori-gori jarriak zituen errailak eta inguruko harrixkak. Julian iritsi eta guri bizkarra emanez hegoaldera begira jarri zen, aurki pasatzeko zen posta-trena noiz azalduko. Alvaroren probokazioei entzun-gorrarena egiten zien.

Beldurgarri zegoen Julian.

Beldurtu antzean Alvaro.

—Gaur Preji ez diat txanponik ekarri —esaten zion ezinegonaz. Izerditan blai zegoen, eta oilarrarena egiten alferrikako lanak hartzen zituen.

—Erdu hona, badiat joko berri bat hiri erakusteko.

Errail baten gainean jezarri zen, eta keinu egin zion hurrena Juliani aurreko arrailean buruz buru paratzeko.

Bostak hiru gutxi ziren nire erlojuan.

Juliani begiradak makal-kukuletara ihes egiten zion, Alvarok ardailarekin jarraitzen zuen bitartean. Zeru sabaia zulatzen zuten zuhaitz puntak hegoaren kulunkan ari ziren emaro-emaro, noiz edo noiz, abarretik abarrera, txoriak etengabeko joan-etorrian ikusten zirelarik. Handik gutxira halere dena ziplo mututu zen, gardantxiloen txioak eta makal-hostoen irria barne, eta Alvaro salbu bertan zen oro espresoaren aiduru jarri zen.

—Ez al dik ipurdiak erretzen?

Minutu eskasa falta zen bostetarako. Nire erlojuan.

—Uztak kontu hori eta goazemak etxera! —erregutu nion nik, etsi-etsian, kontrakoa irudiagatik, joko horretarako gogo gutxien zuenari.

Alvarori.

Alvaro zenari.

Julianen ausentzia nabarmena zen bere hitz eta keinu faltan. Patua edo halabeharraren biktima baino areago, aukera baten egile ikusten nuen nik bere jarrera horretan. Hasiera-hasieratik amaiera horren jakitun, horretarako prestatzeko astia izan duenaren lasaitasun eta irmotasunaren jabe ageri zen, eta horrek beldurgarriago egiten zuen.

Indartsua zen-eta Julian. Oso.

Julian zena.

Zubia dardarka entzun genuen txoperaz haratago.

—Uztazue joko inozo hau, kaguen sos! —nik berriro. Koadrilako azkena aginduak ematen.

Ke-adar bat altxatu zen makalen gainetik, gudanako abioan. Errailak bor-bor. Alvaroren begiek hanpa-hanpa eginda Julianenak bilatzen zituzten, baina honek aspaldi zuen azken bizipen zantzua galdua. Kontzientziarik gabeko gorputz hutsa zen. Metalezkoa zirudien.

Bihurgunea gaingaitu eta bi mutilen gainera oldartu zen posta-trena, ziztuka etengabe. Alvarok guri begiratzen zigun orain, gugandik zerbait itxarongo bailuen edo, agian, instant bateko begiratu horrekin bertan, arrailari iltzatuta geratzearen arrazoiak esplikatatu nahiko balizkigu bezala.

Trenaren abarrotsak eper-saldo bat aldameneko galsorotik altxarazi zuen.

Ziztua berriro, jada gure gainean.

Eta lurrikara.

Lagunek izu-laborriez bagoi sugea pasatzeari itxaroteke alde egin zuten garrasika. Niri luze jo zidan eguzki galdatan igaro nuen momentu hark. Bazirudien bagoi tusto hura infinitoraino hedatzen zela, galsoroez haratago, abiapuntu zukeen hegoaldera bidean. Azken bagoia estazio aldera urrunduz ikusi nuen, zerbait ostu berri duen lapur baten antzera, eta lekutu ahala gibelean zantzu odoleztatu bat uzten zuen errail eta harrixkei lotuta.

JULIANEKIN BATERA izarloka bat itzaldur baldin bazen, Alvaroren bat-bateko ausentzia eguzkia bera desagertzea bezain pairaezina egin zitzaidan bolada luze batez, eta ez bere presentzia beharrezkoa nuelako, ohikoa nuelako baizik, gizakiok norberaren errealitateko gauzetara egiten baikara denboraren joanean, onak edo txarrak, politikak edo itsusiak diren erreparatu gabe.

Errutina beti lagun. Eta babes.

Edo geldirik egoteko aitzakia bat aukeran.

Baina ez ote dira haustura guztiak zerbaiten abiapuntu? Espresso hark zerbait erditu zuen egutera odoleztatu hartan.

Izan ere, latzak, oso latzak izan ziren trenak oroipenez mukuru zetozen gerraosteko egun haiek.